

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### GAUBEAKO UDALA

#### Jendaurrean jartzea Villanañen sinatu beharreko hirigintza hitzarmena

Alkatetzaren uztailaren 13ko 139/2021 Ebazpenaren bidez, alkate-lehendakariak erabaki du Gaubeako Udalaren eta A. G. L. ren artean sinatu beharreko hirigintza hitzarmena onestea.

Espedientea hogeitun egun baliodunez jarriko da jendaurrean iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Egun horietan, interesdunek egoki deritzeten alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte. Espediente osoa udal bulegoetan kontsultatu ahal izango da jendaurrean jartzeko izapideak iraun bitartean.

Hasierako onarpenaren arabera, hitzarmenaren testu osoa, honako hau da:

Gaubeako Udalak eta A. G. L. k sinatu beharreko hirigintza hitzarmena.

Gaubea, 2021eko ..... ren ... (a)

#### Bildutakoak

Batetik, Gorka Salazar Senso, Gaubeako Udaleko alkate-lehendakaria, ekintza hau burutzeko berariaz ahaldunduta baitago, udalbatzak 2021eko martxoaren 13ko osoko bilkuran hartutako erabakiaren bitartez.

Bestetik, A. G. L. jauna, adin nagusikoa (NAN:\*\*\*\*; helbidea:\*\*\*), Villanañeko (Araba) 14 poligonoko 2174 lurzatiaren jabea.

Lekuko eta ekintzaren fede emaile lanetan Olga Pascual Calle andrea, udalaren behin-behinekoko idazkaria.

Bi alderdiek hitzarmen hau izenpetzeko lege gaitasun nahikoa aitortzen diote elkarri eta, horretarako, honako hau

#### Hau adierazten dute

Lehenengoa. A. G. L. Villanañeko 14 poligonoko 2174 lurzatiaren jabea da. Lurzati hori Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean AR-18 (a) eremuan sartutako bizitegitarako hiri lurzoru finkatu kalifikatuta dago, eta urbanizazio karga jakin batzuk bete behar ditu.

Bigarrena. Aipatutako lurzati hiri lurzoru finkatu sailkatu den arren, lurzatiak ez du hornidura- eta saneamendu-sarerik ondoan, ezta indarrean dagoen Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean ezarritako ibilgailuentzako sarbiderik ere.

Hirugarrena. Indarrean dagoen plan orokorraren 64. artikulua hiri lurzoru finkatuaren jabeen betebeharrak gisa ezartzen du lurzatiek ez dituzten eta egin behar diren urbanizazio obrak ordaintzea, eta 157.2.b artikulua ezartzen du udalak beste urbanizazio obra batzuk ordaindu behar dituela lizentziaren gai den eraikuntza proiektuaren kontrata bidezko egikaritze zenbaterakoaren ehuneko 5 gaingiditza duen zenbaterakoan.

Laugarrena. Ondorioz, bi alderdiak ados jarri dira une honetan beharrezkotzat jotzen diren urbanizazio obrak (hornidura eta saneamendua) ordaintzeko, bai eta urbanizatzeko betebeharrak betetzat ematea eta gainerako egikaritzea atzeratzea ere.

Horregatik, honakoa

Hitzartzen dute

Lehenengoa. Gaubeako Udalak, 21.275,58 euroko gehieneko zenbatekorik, 12.275,58 euro ordainduko ditu, eta gainerakoa, hau da, 9.000,00 euro, A. G. L. andreak ordainduko du.

Kopuru horiek lurzattia hornidura- eta saneamendu-zerbitzuez hornitzeko beharrezkoak diren urbanizazio obrei buruzkoak baino ez dira.

Bigarrena. Zenbateko hori ordainduta, Gaubeako Udalak aitortu eta onartu du A. G. L. ren titulartasuneko 14 poligonoko 2174 lurzatiak bete egin dituela AR-18 (a) eremuan egoteagatik dagozkion urbanizazio karga guztiak.

Hirugarrena. A. G. L. k Gaubeako Udalari agintzen dio udalak ezarritako epeak beteko dituela, egiteke dauden urbanizazio-obrak egikarrituko dituela, eta obra horiek ez dituela eskatuko udalak erabaki aurretik.

Beharrezkoa izanez gero, Gaubeako Udalari dagozkio obra horiek egiteko ahalmen eta eskubideak, bai eta ukitutako gainerako jabeei beren betebeharrak bete ditzaten eta dagozkien zenbatekoak ordain ditzaten exijitzea ere.

Eta aurretik azaldutako guztiarekin ados daudela adierazteko eta hala jasota gera dadin, gehigarri honen bi ale sinatu dituzte goian adierazitako tokian eta egunean.

Gaubea, 2021eko uztailaren 13a

*Alkate-lehendakaria*  
**GORKA SALAZAR SENSO**